

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Gradu Amaierako Lana Kudeatzeko, Egiteko eta Defendatzeko Araudia

Arrazoien azalpena

822/2021 Errege Dekretuak, irailaren 28koak, Unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, 1393/2007 Errege Dekretua ordezkatu du. Besteak beste, honakoa xedatzen du: El trabajo de fin de Grado, de carácter obligatorio y cuya superación es imprescindible para la obtención del título oficial, tiene como objetivo esencial la demostración por parte del o la estudiante del dominio y aplicación de los conocimientos, competencias y habilidades definitorios del título universitario oficial de Grado. Este trabajo de fin de Grado dispondrá de un mínimo de 6 créditos para todos los títulos, y un máximo de 24 créditos para los títulos de 240 créditos, de 30 créditos en los títulos de 300 créditos y de 36 créditos en los títulos de 360 créditos. Deberá desarrollarse en la fase final del plan de estudios, siguiendo los criterios que cada universidad o centro establezca. Asimismo, los trabajos de fin de Grado deberán ser defendidos en un acto público, siguiendo la normativa que a tal efecto establezca el centro o en su caso la universidad.

Horrez gain, UPV/EHU gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia onartu zenetik aldatu beharreko zenbait gauza daudela ikusi da. Testuinguru honetan, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2023ko abenduaren 14an egindako bileran, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gradu Amaierako Lana Kudeatzeko, Egiteko eta Defendatzeko Oinarrizko Araudia onartu zuen (2024ko ekainaren 10eko EHAA), Gradu Amaierako Lanak (aurrerantzean GRALak) modu homogeneoan planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko xedeaz, nolahi ere titulazio bakoitzak dituen berezitasunei kalterik egin gabe, ikastegi bakoitzeko batzarrak behar bezala jaso eta arautu eta argitaratu beharrekoak.

Araudi berri honen aplikazioan, Farmazia Fakultatean eskaintzen diren graduko tituluen zehaztapenetara moldatu eta egokitu da Oinarrizko Arautegia Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia Fakultateko Gradu Amaierako Lana kudeatzeko, egiteko eta defendatzeko buruzko arautegi honetan.

1. artikulua. Helburua eta aplikazio-eremua.

1.1. Araudi honek UPV/EHUko Farmazia Fakultateak eskaintzen dituen Graduko ikasketa-planetan zehaztutako GRALak definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta tramitzatzeko irizpideak jasotzen ditu.

1.2. Farmaziako GRALa 2008ko uztailaren 3ko CIN/2137/2008 Aginduan ezarritakoak arautzen du. Agindu horrek farmazialariaren lanbide arautuan jarduteko gaitzen duten

unibertsitate-titulu ofizialen egiaztapenerako betebeharrak ezartzen ditu; araudi hau ere aplikatuko da, baina betiere aipatutako aginduaren menpe egongo da.

1.3. Giza Elikadura eta Dietetikako GRALa 2009ko martxoaren 18ko CIN/730/2009 Aginduan ezarritakoak arautzen du. Agindu horrek dietista-nutrizionistaren lanbide arautuan jarduteko gaitzen duten unibertsitate-titulu ofizialen egiaztapenerako betebeharrak ezartzen ditu; araudi hau ere aplikatuko da baina betiere aipatutako aginduaren menpe egongo da.

1.4. Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio-sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

Beste erakunde publiko zein pribatutan egiten diren gradu amaierako lanek arautegi honetan eta kasuan kasuko lankidetzaren hitzarmenean zehaztutakoari jarraitu beharko diote.

2. artikulua. Gradu Amaierako Lanaren izaera.

2.1. Oro har, GRALa Praktika Tutelatuei, edo Ingurumen Zientziatako Graduan Enpresetako Praktikei lotuta egingo da. GRALa gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, memoria orijinal bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean. Lan horretan, graduako ikasketa-aldian jasotako prestakuntza-gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bilduko eta garatuko dira. GRALak egile bakar bat izan behar du: ikasle bakoitzak, bakarka, egin behar du bere GRALa (planteamendua, garapena eta idazteko lana), eta ezin da beste inorekin elkarlanean egin. Lan autonomoa da, ikasle bakoitzak bere ekimenez egingo duena eta bere gain hartuta lana garatzeko erantzukizuna. Horretarako, zuzendari baten laguntza izango du, zeinak bideratuko duen lana egiteko eta defentsa prestatzeko prozesua.

2.2. GRALa titulazioan zehaztutako ezagutza, gaitasun eta trebetasunak aplikatzeari begira eta, oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai garrantzitsuei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan, eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.

2.3 GRALa UPV/EHUren zeharkako gaitasunen Katalogoan aipatzen diren zeharkako gaitasunak eskuratzera ere bideratuta egon beharko da, eta arreta berezia eskainiko dio diziplina bakoitzak jasagarritasunari eta balio demokratikoei eta bizikidetzari egin diezaiokeen ekarpenari.

2.4. GRALa Graduako azken mailan defendatu eta ebaluatu behar da, behin ikasleak ikasketa planean geratzen zaizkion irakasgai guztietarako matrikula egin duela.

2.5. GRALa Jabetza Intelektualeko Legeak babesten du. Hortaz, egin duenari dagokio jabetza intelektualaren araberako eskubideen titulartasuna, ikasleak GRALa izendatzerakoan onartu zuen dokumentuan besterik zehaztu denean izan ezik,

zehaztapen horiek indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen zehaztapenen eta baldintzen arabera egin badira.

3. artikulua. Izen-ematea eta deialdiak.

3.1. GRALa mota hauetakoa izan ahalko da:

- a. Titulazioarekin lotutako gai bati buruzko berrikuspen bibliografikoa egiteko lana.
- b. Lan praktikoa/esperimentalak, UPV/EHUko laborategi, sail eta ikerguneetan egin ahal izango dena, baita Tutoretzapeko Praktikak edo Enpresetako Praktikak egiten diren zentro/erakunde edo enpresetan ere.
- c. Aurreko modalitateekin bat ez datozen bestelako lanak

3.2. Edozelan ere, idatzizko memoria edo proiektu batean gauzatuko da lana, eta erantsita izango ditu ikastegiak zehaztutako prozedurari eta arautegi honetako 9. artikuluari jarraikiz erantsi beharreko materialak.

3.3. Gradu amaierako lana lan akademikoa da baina, kasu batzuetan, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ere izan daiteke. Lanak eskatzen badu jardueraren bat egitea gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin, zuzendariak lanaren ondorio etikoak aztertuko ditu, 7.5 artikuluan adierazitako moduan.

4. artikulua. Gradu amaierako lana egiteko irizpide nagusiak.

4.1. Gradu amaierako lanak garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahalegin- duko da eta horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:

- a. UPV/EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakundearen irudi baitira.
- b. Hizketa inklusiboa erabiltzea, eta generoren ikuspegia txertatzea gizakiekin zerikusia dauka- ten lanetan.

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, pertsonen buruzko informazioa erabiliko da bakar bakarrik akademikoki justifikatuta badago; eta, hala eginez gero, modu anonimoan erabiliko da, eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatuko bermatuko da.

4.2. Ikastegiekin zainduko dute gradu amaierako lanak egiten direla UPV/EHUren i3 hezkuntza ereduren arabera. Ildo horretan, erakundeek (sektore publikoa, sektore pribatua, hirugarren sektorea eta GGKEak) sustatuko dute egitea benetako beharrei edo erronkei buruzko gradu amaierako lanak, gizarte erronkei eta jasangarritasunaren dimentsio guztiei arreta berezia eskainiz. Era berean, 2030 EHUagendarekin lerrokatutako gradu amaierako lanak egitea bultzatuko dute, eta lan esparru horien berri emango dute irakasleen eta titulazioetako ikasleen artean.

4.3. Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, gradu amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta GIHeK osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatzen ditzake.

Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

- Giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoen ere.
- Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.
- Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienez, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifiko gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GIHeK adieraziko dituzte, unibertsitateak edo ikasle- gaitasun antolatuko dituen sistemen bidez.

5. artikulua. Izen-ematea eta deialdiak.

5.1 Unibertsitateak ikasturte bakoitzean ezartzen duen matrikula-epe orokorraren barnean, edo Fakultateak ezarritako epeetan, egingo da GRALaren matrikula, eta ikasleak GRALa defendatu ahal izateko eskaturiko baldintzak betetzen dituenean Fakultateko araudiak 2.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, ikasleak GRALak esleituta dituen kredituei dagozkien prezio publikoak ordaindu beharko dituzte.

Edozein kasutan, GRALaren matrikula egin ahal izateko, ikasleak matrikulatuta izan beharko dituzte ikasketa plana bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak.

5.2. Ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetan parte hartzeko eskubidea emango du matrikulak, Gobernu Kontseiluak onartutako irakaskuntza egutegiak ezarritakoaren arabera. Ezarritako deialdietan lana defendatu ez duten edo gaitasun ez duten ikasleek berriro egin beharko dute matrikula hurrengo ikasturtean.

5.3. GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duen esango du ikasleak.

5.4. Fakultateak, irakaskuntza antolatu eta programak egiteko irizpideak kontuan hartuta, GRALen defentsak egiteko datak ezarriko ditu urtero, ikasturte bakoitzean gutxienez bi aldi zehaztuz kontuan hartuta GRALa Graduak azken mailako bigarren lauhileko irakasgaia dela. Ikasleak ikasketak amaierako aparteko deialdia eskatu ahal izango du Graduak Ikasketen Gestiorako Araudian zehaztutako baldintzei jarraituz.

5.5. GRALaren epaimahai bakoitzaren ebaluazio-akta epaimahaiko idazkariak beteko du eta Ikasle eta Gradu Amaierako Lanen Dekanordeari helaraziko dio.

5.6. GRALaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Araudiari jarraiki itxi beharko da eta Ikasle eta Gradu Amaierako Lanen Dekanordearen ardura izango da artikulua honetan jasotakoa betetzen dela zaintzea eta akta Ikasleen idazkaritzara helaraztea.

6. artikulua. Zuzendaria, hura esleitzea eta lanaren gaia aukeratzea.

6.1. Gradu amaierako lanaren zuzendaria izango da graduan eskolak ematen dituen saileko irakasle bat edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitako bat, eta Praktika Tutelatuen edo Enpresetako Praktiken tutorea ere izango da. Irakaslea arduratuko da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzeaz, lanaren garapenean hura orientatzeaz eta ezarritako helburuak beteko direla bermatzeaz, baita jarraipena egin eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idazteaz ere.

6.2. GRALa pertsona batek baino gehiagok zuzendu ahal izango du. Kasu honetan, Praktika aldiaren ikaslearen tutore izan den irakaslea izango da zuzendarietako bat, gutxienez.

6.3. GRALaren zuzendarikide izan ahalko dira unibertsitatearekin lotura daukaten doktoreak eta doktorego aurreko kontratua daukatenak (baldin eta kontratuak horretarako aukera ematen badu), baldin eta graduan irakaskuntzarik duten sailen bateko kide den edo Farmazia Fakultateari atxikita dagoen zuzendarikiderik badago.

6.4. UPV/EHUko erakundeak ez diren beste erakunde batzuetan Praktikak egitean, instruktore gisa parte hartu duen eta unibertsitatekoa ez den langile batek zuzendu ahal izango du GRALa, praktiken hitzarmenaren esparruan. Kasu horretan, 6.1 ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide batek egon beharko du eta tutoretzapeko praktiken tutorea izan beharko du.

6.5. Graduan eskolak ematen dituzten sail guztiek zuzendu beharko dituzte GRALak, Araudi honen 6.6, 6.7 eta 6.8 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

6.6. Gradu Amaierako Lanen zuzendaria esleitzeko dei orokorra egingo zaie Farmazia Fakultateak eskaintzen dituen Graduetan irakasten duten irakasle guztiei. Ikasturte bakoitzaren hasieran, Graduak tituluetako ikasleen Praktika Tutelatuen edo Enpresetako Praktiken tutore eta GRALen zuzendari gisa parte hartzeko eskatuko zaie irakasleei.

6.7. Fakultatean eskaintzen diren Graduetan irakaskuntza duten sailek ikasle kopuru baten tutore edo zuzendari izan beharko dute. Kopuru hori, ikasturte bakoitzeko

matrikulatutako ikasleak eta Graduoko titulu bakoitzean sailak/atalak duen eskola-orduak kontuan hartuta ezarriko da, dokumentu honen bukaeran atxikitako tauletan agertzen den moduan. Irakasle boluntarioen kopuruak beharrak asetzen ez dituen deialdietan, lanpostu hutsak betetzeko behar diren zuzendari eta tutoreak izendatzea Sail-Atal-Arloen ardura izango da, eta hala eskatuko zaie, beti ere titulazioan emandako eskola-orduen proportzionaltasunari erreparatuta.

6.8. Nolanahi ere, ikasturte bakoitzean, irakasle bera 4 ikasleren tutorea/zuzendaria izan ahal izango da, gehienez. Zuzendarikidetzak Gradu Amaiera Lan erdi gisa kontabilizatuko dira, beti ere zuzendarikideek bestelako ardura banaketarik, beren beregi, eskatzen ez badute, eta zuzendutako lanen batura osoak ez du arestian adierazitakoa gaindituko.

6.9. GRALaren gaia Zuzendariaren eta ikaslearen artean adostuko da. GRALa Praktika Tutelatuekin edo Enpresetako Praktikei lotuta badago, instruktorearen orientazioa eskatu ahal izango da gaia aukeratzeko. Gaia aukeratua, ikasleak edo zuzendariak Fakultatean ematen diren titulazio bakoitzeko Batzordeari proposatuko dio gai hori, dagokion inprimakia betez. Fakultateak beste entitate edo enpresa batzuekin sinatutako hitzarmenetatik eratorritako konpromisoak direla eta, edo Fakultate beraren interesagatik, gai jakin batzuei heltzea proposatzen denean, Ikasleen eta Gradu Amaierako Lanen Dekanordeak ikasturtearen hasieran argitaratuko du gaien zerrenda.

6.10. Gaia aukeratu ondoren, proposamena titulazioko batzordeari helaraziko zaio, dagokion inprimakia bete ondoren.

6.11. Proposatutako gaiaren egokitasuna ebaluatuko du titulazio bakoitzaren Batzordeak, eta, hala badagokio, hura egiteko baimena emango du.

6.12. Batzordeak gaia baimentzen ez badu, beste proposamen bat egiteko epea proposatuko du.

7. artikulua. Zuzendariaren eginkizunak eta bere lana aitortzea.

7.1. Irakasle zuzendariaren ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere.

7.2. Zuzendariaren eginkizuna da lanaren garapena ontzat ematea eta gainbegiratzea.

7.3. Lanaren zuzendari irudiak aitortzea izango du unibertsitatearen kasuan kasuko arautegian zehaztutakoari jarraikiz.

7.4. Zuzendariak lanaren eragin etikoa aztertuko du izan ditzakeen ondorioak zehazteko.

7.5. Zuzendariak laguntza emango dio ikasleari:

Lanaren egitura zehazteko.

Iturri egokiak aukeratzeko eta erreferentziak zuzen egiteko.

Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egin behar den lanean kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari. Halakoetan, aholkuak emateaz gain, azalduko dio nola bete behar diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak (9. artikuluan aipatzen direnak).

Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, zuzendariak kasu hori identifikatzen eta akademikoki behar bezala justifikatzen lagunduko dio ikasleari, eta azalduko dio zer egin behar duen informazioa anonimoa izan dadin eta bermatzeko inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu.

Lana idazteko.

Epaimahaiaren aurrean egin beharreko aurkezpena prestatzeko.

8. artikulua. Lana kanpoko erakundeekin lankidetzan egitea.

8.1. GRALa unibertsitatetik kanpoko erakunde batekin egin ahal izango da. Horretarako ezinbestekoa izango da lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

8.2. Lankidetzaren hitzarmen horiek arautegi honetan zehaztutakoari jarraikiz egingo dira, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegiko 25.f) artikulua babesean (2009ko maiatzaren 26ko EHAA).

Lankidetzaren hitzarmena errazteko, Gradu Batzordeak hitzarmen ereduak onartuko ditu; arautegi honi erantsiko zaizkio eta UPV/EHUk horiek erabiltzea sustatuko du. Hitzarmena bat badator onartutako ereduaren batekin, ikastegiak zuzenean sinatu ahal izango du. Ereduarekin bat ez badator, ikastegiak gainbegiratu egingo du edukia bat datorrela arautegi honekin, eta, ondoren, sinatu egingo du.

Hitzarmena sinatuko dute erakunde lankideko kide batek eta ikastegiko zuzendaritza taldeko kide batek (batak zein besteak hitzarmena sinatzeko gaitasun nahiko izan behar du).

8.3. GRALa beste erakunde batean eginez gero, alde aurretik zehaztu egin beharko da konfidentzialtasuna dela-eta mugarik dagoen emaitzaren bat aurkezteko edo argitaratzeko edo lana jendaurrean defendatzeko. GRALa egitean erabiliko bada, modu justifikatua eta arrazoi akademikoengatik, erakundearen sortu den pertsonen buruzko informazioa, modu anonimoan erabiliko da eta bermatuta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu; eta lan idatzian azalduko da zeintzuk neurri hartu diren hori ziurtatzeko.

9. artikulua. Ondorio etikoak dituzten GRALak eta UPV/EHUko Etika Batzordearen jarraibidea betetzea.

9.1. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin, animaliekin, edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, zuzendariak, lana mota horretakoa dela behin identifikatuta, ikasleari lagunduko dio baloratzen ondorio etikoaren garrantzia eta azalduko dio nola bete lan akademietarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen webgunean argitaratuak.

9.2. Aipatutako kasu horietan, UPV/EHUren ikerketa eta irakaskuntzaren arloko Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du zuzendariak. Etika Zerbitzuak, bere aldetik, jarraibideak eta prozedurak etengabe hobetzen direla zainduko du, estandar etikoak betetzea errazteko eta betetze horren justifikazioa ahalik eta arinen egiteko.

9.3. Egindako beste jarduera akademiko batzuetatik (praktikak, prestakuntza duala, etab.) eratorritako informazioa bigarren mailan erabiltzen duten lanen kasuan, 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko da informazioa anonimoa izan dadin eta inplikaturako pertsonak ezingo direla identifikatu bermatzeko, baina ez da aurkeztu beharko dokumentu gehiago. Hala ere, GRALean zehazki aipatu beharko da informazio iturria, bai eta zer egin den anonimotasuna bermatzeko ere. Alde horiek arreta bereziz gainbegiratu beharko ditu tutoreak.

9.4. Ondorio etikoak dituzten lanen defentsan, epaimahaiak ebaluatuko du, baita ere, bete diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan frogatu beharrekoak.

10. artikulua. Gradu Amaierako Lanaren aurkezpena eta defentsa.

10.1. Ikasleak, horretarako ezarritako epeen barruan, bere GRAL formatu digitalean igo beharko du erakundearen gordetegi akademikora (ADDI), lanaren izaerak bestelako biderik eskatzen ez badu behintzat, eta GAUREn defentsa eskatu. Ikasleen eta Gradu Amaierako Lanen Dekanordeak epaimahaiko kide bakoitzak ebaluatu behar dituen GRALen kopia digitala jasotzen duela gainbegiratu behar du.

10.2. Ikasleak aurrez aurre eta jendaurrean defendatu beharko du GRALa. Ikaslea mugikortasun programa batean badago eta programa horretan dagoela egiten badu GRALa, defentsa beste Unibertsitatean egin ahal izango du, betiere, bi unibertsitateek alde aurretik horretako baldintzak zehaztuta badituzte.

10.3. Titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera, graduaren eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu beharko da lana, guztia hizkuntza berean, baldin eta hizkuntza horiek dakizkiten epaimahaiak osatu ahal

badira. Egiaztatze memorian besterik adierazi ezean, GRALa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

10.4. Ikasle bakoitzak titulu bakoitzaren ikasketen gidaliburuan ezarritako GRALaren defentsa egiteko gehieneko denbora tarte bat edukiko du eta denbora tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Aurkezpena amaitu ondoren, eztabaidarako txanda bat irekiko da, ikasleak epaimahaikideek egin ahal izango dizkioten galdera, azalpen, iruzkin eta iradokizunei erantzuteko.

11. artikulua. Ebaluazio Epaimahaia

11.1. Ikasle eta Gradu Amaierako Lanen Dekanordetzak osatuko ditu Ebaluazio Epaimahaiak, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren GRALen gaiak kontuan hartuta. Horri dagokionez, ebaluazio-epaimahaiak gutxienez bi hizkuntza ofizialetan osatuko direla bermatuko da.

11.2. Ebaluatzeko Epaimahaiak osatzeko dei orokorra egingo zaie Farmazia Fakultateak eskaintzen dituen Graduetan irakasten duten irakasle guztiei.

11.3. Epaimahai bakoitza hiru kidek eta gutxienez, ordezko batek osatuko dute; horiek guztiak Graduan irakaskuntza duen sail bateko kideak diren irakasleak edo Farmaziako Fakultateari atxikitako irakasleak izango dira.

11.4. Epaimahai bakoitzean Lehendakari eta Idazkari bana egongo dira. Horiek irakaskuntza-kategoriaren eta antzinatasunaren irizpidearen arabera izendatuko dira eta lehendakari eta idazkari gisa jardungo dute ekintza guztietan.

11.5. Irakasleek ezin izango dute parte hartu eurek zuzendutako GRAL ebaluatzen duen Epaimahaietan

11.6. Irakasle bakoitzak, gehienez, GRALak ebaluatzeko bi Epaimahaitan parte hartuko du ikasturteko, zuzendutako GRAL kopurua edozein dela ere.

11.7. Irakasleek, deialdi bakoitzeko, Ebaluazio Epaimahaia bakarrean parte hartuko dute, bestelako interesik adierazten ez badute behintzat.

11.8. Irakasle faltagatik Ebaluazio Epaimahaiak osatu ezin diren deialdietan, osatzeke dauden epaimahaietako graduetan irakaskuntza duten Sail-Atal-Arloei eskatuko zaie Epaimahaiak osatzeko euren saileko behar beste irakasle proposatu ditzatela, beti ere titulazioan emandako eskola-orduen proportzionaltasunari erreparatuta.

11.9. Farmazia Fakultateko Dekanotzak beti eskura izango du irakasle bakoitzak parte hartu duen ebaluazio-epaimahaien kopuruaren zerrenda, 11.8 puntuan aipatutako proportzionaltasun-irizpideak bete daitezen.

12. artikulua. Ebaluazioa eta kalifikazioa.

12.1. Ikaslearen aurkezpena bukatu eta zuzendariaren txostena ikusi ondoren, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du ikasketen gidaliburuan GRALari buruz argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoari jarraiki.

12.2. Lortutako kalifikazioa gutxiegi bada, epaimahaiak txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana hobetzeko eta ondoren ebaluatu ahal izateko beharrezko gomendioak eginez. Txosten horren kopia bat igorriko zaio, era berean, zuzendariari.

12.3. Kalifikazioa egiteko, 0tik 10era bitarteko honako zenbaki-eskala hau erabiliko da. Hamartar bat adierazi beharko da, eta gainera, dagokion kalifikazio kualitatiboa ere gehitu beharko zaio:

- 0 - 4,9: Gutxiegi (G)
- 5,0 - 6,9: Nahiko (N)
- 7,0 - 8,9: Oso ongi (OO)
- 9,0 - 10: Bikain (B)

Deialdiren batean defentsa eskubideari uko eginez gero, "Ez aurkeztua" kalifikazioa jarriko da.

Deialdi bakoitza amaitu ondoren, ikastegiak «ohorezko matrikula» eman ahal izango die 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei, baina, betiere, gehienez ere GRALaren defentsan kalifikaziorik onena lortu duten ikasleen % 5ari.

12.4. GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Araudiari jarraiki egingo dira. Hala ere, epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta ondoren, dagokion tituluaren batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Unibertsitateko errektoreari.

12.5 Nolanahi ere, GRALen kalifikazioak urriaren 31 baino lehen agertu beharko du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai horri dagokion atalean.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

Araudi hau Farmazia Fakultateko Batzarrak onartzen duen egunaren biharamunean jarriko da indarrean

Sailei/atalei eginiko ikasleen izendapena, tituluen eta eskola-orduen arabera

TAULA 1

INGURUMEN ZIENTZIAK	
Saila/atala	Eskola-orduen arabera (%)
Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia	2,6
Ekonomia Aplikatua	2,6
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa	0,6
Fisika	4,5
Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia	12,7
Geologia	5,2
Ingeniaritza Elektrikoa	2,9
Ingeniaritza Kimikoa	8,1
Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza	8,5
Kimika Analitikoa	5,9
Kimika Organikoa eta Ez-Organikoa	2,9
Kimika Organikoa I	3,2
Landareen Biologia eta Ekologia	15,5
Matematika	2,9
Meatze eta Metalurgia Ingeniaritza eta Materialen Zientzia	2,6
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publiko	2,9
Soziologia eta Gizarte Langintza	5,2
Zelulen Biologia eta Histologia	1,8
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia	9,3
GUZTIRA	%100

TAULA 2

ELIKAGAIEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	
Saila/atala	Eskola-orduen arabera (%)
Animalia ekoizpena	3,1
Biokimika eta Biologia Molekularra	7,5
Elikagaien teknologia	24,7
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa	0,7
Finantza Ekonomia II (Enpresa Ekonomia eta Merkaturatzea)	2,7
Fisika	2,0
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	8,0
Ingeniaritza Kimikoa	9,3
Kimika Analitikoa	3,1
Kimika Fisikoa	6,6
Kimika Organikoa eta Ez-Organikoa	1,3
Kimika Organikoa I	4,9
Matematika	3,0
Nutrizioa eta Bromatologia	18,6
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publiko	2,7
Zelulen Biologia eta Histologia	1,9
GUZTIRA	%100

TAULA 3

FARMAZIA	
Saila/Atala	Eskola-orduen arabera (%)
Biokimika eta Biologia Molekularra	7,4
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa	0,3
Farmakologia	16,0
Farmazia y Tecnologia Farmazeutikoa	18,1
Fisika	2,4
Fisiologia	2,2
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	11,3
Kimika Analitikoa	4,2
Kimika Fisikoa	6,5
Kimika Organikoa eta Ez-Organikoa	4,3
Kimika Organikoa I	11,0
Landareen Biologia eta Ekologia	1,7
Matematika	2,3
Medikuntza	1,1
Neurozientziak	2,4
Nutrizioa eta Bromatologia	3,1
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publiko	1,8
Zelulen Biologia eta Histologia	3,7
GUZTIRA	%100

TAULA 4

GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA	
Saila/atala	Eskola-orduen arabera (%)
Biokimika eta Biologia Molekularra	6,0
Elikagaien teknologia	7,9
Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa	0,7
Fisiologia	7,1
Gizarte Psikologia	6,0
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	8,8
Kimika Fisikoa	3,3
Kimika Organikoa I	3,8
Matematika	2,7
Medikuntza	2,3
Neurozientziak	6,0
Nutrizioa eta Bromatologia	32,9
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publiko	5,3
Soziologia eta Gizarte Langintza	4,0
Zelulen Biologia eta Histologia	3,4
GUZTIRA	%100